2007-II-23
Número **208.** zenbakia

ELA

astekaria

# EDITORIALA

## Berdintasunerako legearen mugak

**Orain bi urte onartu zuen Eusko Legebitzarrak emakumeen eta gizonen berdintasunerako legea. Zertan da, bi urte geroago, legearen eragina? Eman diren urratsak egitura eta erakunde publikoetan emakumeek izan behar duten presentzia bermatzeko izan dira; hortik aurrera, ezer gutxi, orain arte behintzat.**

**Badirudi Eusko Jaurlaritzarentzat emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasuna, ohitura edo kultura kontua dela, pedagogia egoki batekin zuzendu daitekeena. Pedagogia egokia beharrezkoa da, noski, baina ez da nahikoa gure errealitate sozial eta ekonomikoan barneratuta dagoen emakumezkoen bereizkeriari aurre egiteko.**

**Eusko Jaurlaritzak eta sostengatzen duten alderdiek izango lukete, hala ere, non saiatu benetan diskriminazioa erauzi nahi baldin balute. Bi alor aipatuko ditugu, euskal instituzioen esku daudenak: hainbat sektore feminizatuekiko jokabidea, eta politika soziala.**

**Lehenengoari dagokionez, gure instituzioak esku pribatutan jartzen ari dira arrunki emakumeek betetzen dituzten hainbat zerbitzu, hara nola, pertsonen zaintza eta eraikinen garbikuntza. Ondorioak jakinak dira: soldata apalak eta lan baldintza kaskarrak. Ez du ematen berdintasunerako biderik egokiena.**

**Politika sozialari dagokionean ere, gastuak mugatzea eta, ahal izanez gero, murriztea dute irizpide nagusia. Emakumeak dira, berriro ere, kaltetuenak: pobrezia gizonezkoek baino gehiago jasaten dute, eta, laguntza publikoak iristen ez diren neurrian, etxekoen zaintzara lotuago daude.**

**Bi arlo garrantzitsu hauetan gertatzen denak erakusten digu berdintasunaren aldeko usteek irizpide ekonomizistekin talka egiten dutenean, haiek txiki-txiki eginda geratzen direla; ez gure agintariak berdintasunaren aldekoak ez direlako, neoliberalismoaren aldekoagoak direlako baizik.**

**Etxean du etsaia berdintasunerako legeak.**



### ELAk Abiadura Handiko Trenaren aurkako kanpaina abian jarri du

# "EZTABAIDARIK GABE INPOSATUA"

**ELAk "Abiadura Handiko Trena ez da tren soziala" kanpaina aurkeztu zuen otsailaren 20an Bilbon. Sentsibilizazio kanpaina honekin AHT-ak ez duela gizarte-helbururik betetzen salatu nahi du sindikatu honek. ELAko ingurumen arduradun Janire Dominguezek azpimarratzen duenez, "kanpainarekin trenbide sozial baten alde egiten dugun apustua nabarmendu nahi dugu. Argi dago AHT-ak ez dituela egungo beharrak asetzen".**

Mobilizazio ezberdinak egingo dira proiektuak kaltetutako eskualdeetan. "Lanak hasita daude dagoeneko zenbait lekuetan, eta horregatik lehenbailehen bertan behera uztea eskatuko dugu". Janire Dominguez guzti honetaz mintzo da.

**-Abiadura Handiko Trenaren aurkako kanpaina aurkeztu berri du ELAk. Zergatik?**

-Makina bat aldiz aipatu dugu zergatik gauden proiektu honen aurka: ez du konpontzen pertsonak eta salgaiak garraiatzeko beharra, hiriburuak baino ez ditu lotzen, ez dago txertaturik garraiobideen eredu orokor batean, izugarrizko kalteak eragiten ditu inguramenean, kostu ekonomiko itzela dakar…

Gizartearen aurrean inolako eztabaidarik burutu gabeko proiektua da. Eta, pentsa! Obrak dagoeneko hasi dira hainbat lekutan. ELAk hamar urte daramatza herri-eztabaida eskatzen, eta oraingoan mobilizazio kanpaina martxan jarriko dugu, horrelako proiektu batek merezi duen eztabaida bultzatzeko.

**-ELAk hamaika saiakera egin ditu gai honen inguruko eztabaida bultzatzeko. Erantzunik jaso dugu?**

-Ez, ez, ez… Eusko Jaurlaritzako arduradun politikoek, oraingoek ere bai, ezetza eman digute beti. Hitza eta iritzia herriari eman beharrean, proiektu okerra ezarri digute. Dena den, egia esan, ez digu askorik harritzen erantzunik ez jasotzeak, hori baita Jaurlaritzaren ohiko jarrera. Jaurlaritzaren lan egiteko modua ez da batere demokratikoa abiadura handiko trenaren eta beste gai batzuen inguruan.




*Mikel Noval, Janire Dominguez eta Jose Elorrieta, "AHT-a ez da tren soziala" kanpainaren kartelarekin*

→

### No llamó a una trabajadora por hallarse de baja por maternidad

# OSAKIDETZA DISCRIMINA

La Sentencia de la Sala de lo Contencioso-Administrativo del TSJ da la razón a ELA en el caso de una trabajadora que se encontraba en las listas de contratación temporal de Osakidetza y no fue contratada, por hallarse de baja en las seis semanas posteriores al parto. La dirección de Osakidetza entendió que no la podía contratar y llamó a la siguiente en la lista.

*"Emakumeen aurkako diskriminazioarekin amaitzea ez dago Administrazioaren lehentasunen artean"*

El TSJ considera que esta actuación es contraria a la doctrina del Tribunal Constitucional y, en general, a la protección que la ley otorga a las mujeres para que no puedan ser discriminadas ni en el acceso al empleo ni en su conservación por razón de la maternidad. La sentencia que señala que no hay ningún inconveniente legal para que la Administración solvente el problema de cubrir el puesto de trabajo sustituyendo a la trabajadora mientras dure ese período de descanso obligatorio de 6 semanas, de la misma manera que la sustituiría si habiendo empezado ya a trabajar cayera enferma

Según Alazne Alonso, responsable del área de género de ELA, esta sentencia tiene una gran relevancia para un importante número de mujeres que se encuentran en una situación similar y, por lo tanto, trabajando en precario, ya que este aspecto no se encuentra regulado en las normas de contratación temporal de las Administraciones Públicas.

En su opinión, en este caso como en otros muchos, la administración ha actuado con un criterio de ahorro de costes, saltándose sin incluso la propia ley de igualdad aprobada por el Gobierno vasco hace apenas dos años. "La administración esta más preocupada en quedar bien y proteger sus intereses que en resolver los problemas reales derivados de la discriminación que sufrimos las mujeres en el mundo del trabajo".

**-Kanpainaren aurkezpen ekitaldian Ibarretxeren sinisgarritasun falta salatu zenuen...**

-Agerikoa da herri honen ingurumen, gizarte eta ekonomian kalte eztabaidaezinak eragingo dituen proiektu batek eztabaida merezi duela. Guk eztabaida hori bultzatuko dugu herriz herri. Ahalik eta lagun kopuru handienarengana heldu nahi dugu gure mezua azaltzeko.

Ibarretxek, hitzez, behin eta berriz defendatzen du herri honek duen erabakitzeko eskubidea. Behin eta berriz dio euskaldunok geure etorkizuna erabakitzeko eskubidea dugula, baina horrelako gaiei erantzutean ere erabakitzen da etorkizuna. Hitzetatik ekintzetara igorotzen ez dena ezin da sinisgarria izan.

**-Zer eskatzen dio ELAk Jaurlaritari?**

- Gauden puntuan gaudela obrak bertan behera uzteko eskatzen diegu erakunde publikoei. Eta, noski, pentsamoldeak irekitzeko ahalak eginez, Euskal Herriko trenbide-sarea beste ildo batetik lehenbailehen eramateko ere. Ezinbestekoa da lanak berehala gelditzea, eztabaida sustatu eta gizartearen eta egungo trenbideak aprobetxatuta, trenbide sarea diseinatzea.

**-Nuria Lopez de Gereñu Garraio Sailburuak hitz gogorrak izan ditu ELAren kanpainaren aurka.**

-Garraio sailburuak, argudiorik eman gabe, gaitzetsi du gure eskaera: Abiadura Handiko Trenari buruzko eztabaida eta herri-kontsulta egitekoa. Orain, ikusitakoa ikusita, inoiz baino sendoago dago gure jarrera. Nuria Lopez de Gereñuk ezin izan du frogatu proiektua baliagarria denik pertsonak garraiatzeko ezta salgaiak garraiatzeko ere.

Proiektu hori Espainiako Gobernuak erabaki zuen, eta euskal erakundeek besterik gabe onartu zuten, jendaurreko eztabaidara atera gabe. Adibide bat jartzearren: Tren Sozialaren aldeko Sareak bilera egiteko eskatu zion sailburuari, izendatu zuten garaian, eta harez gero ez du erantzunik jaso.

Azkenik, ez dugu onartuko, beraz, biolentziazko jokabideekin nahastu nahi izatea, ezta ustezko mehatxuez baliatzea ere, herriari dagokion eztabaida kentzeko, edo ondo bideraturiko kritikak besterik gabe indargabetzeko.

> *"La Consejera de Transportes ha respondido con descalificaciones y falta de argumentos a la demanda de debate social y consulta popular. Su respuesta no viene sino a confirmar nuestra posición"*
>
> *"Dice la Consejera que ha debatido 'hasta la extenuación'. ¿Con quién, dónde, cuándo? Este es un proyecto decidido por el Gobierno español y aceptado por las instituciones vascas, que se ha hurtado al debate público"*

## "GURE AUKERA, TREN SOZIALA"

**-Zein alternatiba proposatzen du ELAk Abiadura Handiko Trenaren aurrean?**

-Behin eta berriro sustatu izan dugu trenaren aukera. Gure iritziz ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren beharrak hobeto betetzen ditu. Baina, era berean, egungo tren-sarearen egoera salatu izan dugu, ez baititu egokiro betetzen aipaturiko beharrizanak.

Tren-sareak euskal beharrizanak bete behar ditu, hau da, herriak, eskualdeak eta lurraldeak lotu behar ditu, errepide bidezko garraioari ordezkoa eskainiz, eta pertsonei zein salgaiei bide emanez. Sare hori ondo kateaturik egon behar da gainerako garraiobideekin, eta balio anitza ere izan behar du. Horregatik, ondo bilbaturik egon behar da, beste atal bat bezala, garraiobide publiko guztien eredu orokor batean.

**-Zein ezaugarri bete behar lituzke sare horrek?**

-2006ko apirilean hainbat erakundek sinatu zuten protokoloan jasota geratu denez, sareak hainbat baldintza bete behar zituen. Batetik dauden trenbideak ahalik eta gehien aprobetxatu behar dira jasotzen zuen, eta behar izanez gero, dagoen trazadura zabaldu eta hobetzea.

Bestalde, sare nagusiko zein bigarren mailako trenbide berriak eraikitzea erabat beharrezkoa denean, horren gaineko eztabaida jendaurrera ateratzea proposatzen zen, hartu beharreko erabakia gizartearen adostasunez hartzea. Azkenik, eraikuntzaren eta mantentzearen kostua (ekonomikoa, ekologikoa eta energetikoa) zerbitzuaren neurrikoa izan behar da.

**-EAEko administrazioak, ordea, ez ditu kontutan ere hartu proposamen horiek.**

-Bai, zoritxarrez horrela da. Tren sozialaren norabidean aurrera egin beharrean, EAEko administrazioek Euskal Y-aren alde egin dute, sutsu bezain itsu. Besterik gabe berenganatu dute Espainiako Gobernuaren proiektua, euskal esparrurako pentsatuta ez badago ere, eta gizarte-ekarpenik, ezta ondorengo aldaketarik ere, jaso ez badira ere.




Iritzia Opinión

# ¿MILEURISTAS?

Empieza a ser un lugar común referirse al sector laboral más precario (jóvenes y mujeres, fundamentalmente) como "mileuristas". Es tal el grado de socialización del enunciado, que hasta Espido Freire titula de esa manera su último best seller. Literatura aparte, lo cierto es que con ello damos por hecho que esos famosos 1.000 euros constituyen el mínimo salarial en que se mueven los menos afortunados y que, a partir de ahí, las cosas mejoran paulatinamente según sector, contexto y tesitura.

Hay que reconocer que la palabreja suena bien y tiene gancho. Tanto, que si seguimos blandiéndola a modo de análisis, queja o reivindicación, acabaremos de dar por sentado que las cosas son así y que ese es el suelo real del panorama sociolaboral guipuzcoano. Sin embargo y por desgracia, hay todavía bastantes sectores y colectivos laborales a los que les encantaría ser considerados "desafortunados mileuristas".

Sé perfectamente que en el terreno de la semántica suenan peor y casi devienen en impronunciables conceptos como " setecientoseruristas y ochocientoseuristas" , pero reflejarían bastante mejor el actual estado de la cosa económica para bastantes jóvenes y mujeres. Y no me estoy refiriendo a trabajadores y trabajadoras sin contrato o en condiciones fraudulentas. Tampoco incluyo en esta apreciación a inmigrantes doblemente explotados, trabajadoras del hogar "clandestinas" , ni personal de hostelería con parte de la jornada y salario en "negro" e invisible para la Seguridad Social. Ni siquiera a becarios y aprendices utilizados como carne de cañón. No, ¡qué va!: esos no son el suelo legal , sino el subsuelo ilegal y materia en todo caso de intervención urgente para la inoperante Inspección de Trabajo.

Hablo de la gente (mujeres jóvenes, casi siempre) que nos atiende en los comercios del textil, incluidas esas grandes cadenas de moda de archiconocidos nombres. Hablo también de las perfumeras y drogueras guipuzcoanas, actualmente en pie de guerra para conseguir un convenio provincial que les redima de las miserias del estatal que padecen. Hablo del personal del Comercio del Alimentación. Hablo de las nuevas subclases sociales que se están generando en grandes empresas y en las mismísimas Administraciones Públicas, con subcontratas que bajo el eufemismo de "servicios" acaban por hacer buenas a las propias ETTs y conforman "de facto" dobles escalas salariales y sociales para el mismo trabajo. Hay más, pero valgan estos ejemplos como muestra .

Resumiendo: por desgracia, a la palabreja "mileurista" todavía no le ha llegado la mayoría de edad para ser empleada en el tono peyorativo que le venimos dando. Confiemos en que mediante la concienciación y la lucha de todas y todos, el "mileurismo" acabe por ser, realmente, el suelo a superar y no la todavía latente y sentida reivindicación de decenas de miles de guipuzcoanas. Siempre, claro está, que no coincidamos con las recientes palabras del secretario general de CC.OO., sr. Fidalgo, y, como él, consideremos que ser joven y cobrar poco es "ley de vida".

**XABIER PEREZ HERRERO,**
**Secretario General de ELA-Gizalan**

> *Langile askok nahiko lukete bai hilean 1.000 euro irabaztea; soldata asko kopuru horren azpitik daude egun*

Elkarrizketa Entrevista

## German Kortabarria responde a Rafa Díez

# "EL DISTINTO ANALISIS POLITICO NO DEBIERA CONDICIONARLO TODO"



**El secretario general de LAB, Rafa Díez, se ha referido a ELA en términos muy negativos, en el contexto de la convocatoria de una hora de paro para el 23 de febrero, por la autodeterminación y la *amnistía*. German Kortabarria, secretario general adjunto de ELA, responde a Rafa Díez y habla del momento de las relaciones entre ELA y LAB.**

**-¿Cómo valoras las declaraciones de Rafa Díez sobre ELA?**

-Esas declaraciones nos han sorprendido, y también preocupado. Es cierto que el Foro de Ibaeta tenía prevista la convocatoria de una manifestación para el 20 de enero, por los derechos de los presos. Tras el coche bomba de ETA en Barajas, a pesar de la gravedad y las consecuencias de todo tipo de aquel atentado, ELA quiso mantener la manifestación, para lo que propuso dos alternativas.

La primera, que el Foro incorporara de alguna manera en su reflexión el análisis de un hecho tan reciente y relevante como el atentado de Barajas. La otra alternativa consistía en que la convocatoria de manifestación la realizara formalmente Etxerat, con el compromiso del resto de organizaciones de adherirse inmediatamente a la convocatoria y llamar a sus bases a secundarla. De esta forma se posibilitaba que cada organización incorporara su propio análisis y matices, sin poner en cuestión una convocatoria en la que todas coincidían.

Lo cierto es que ninguna de las dos alternativas fue aceptada; reconocemos que la primera, por las profundas diferencias entre miembros del Foro, tenía alguna dificultad; en el caso de la segunda, su rechazo nos sorprendió más, ya que pensábamos que era una fórmula perfectamente aceptable para todas las partes.

Todavía no acabo de comprender porque no interesó que esa manifestación se hiciera.

**-También afirmó Rafa Díez que la decisión de ELA de no secundar el paro del día 23 "no va en consonancia con la actitud y disposición que en otros momentos ha manifestado en defensa de los derechos de los presos".**

-En materia de represión ELA tiene una posición clara y procura, con todas las limitaciones y dificultades, ser consecuente con ella, teniendo en cuenta que no somos, específicamente, una organización antirrepresiva.

Procuramos que haya un espacio común lo más amplio en torno a este tema, fundamentalmente definido por la defensa de los derechos de las personas. Cuando con estas reivindicaciones se solapa una determinada estrategia política el trabajo en común se complica, porque ELA no puede aceptar ser acompañante de una estrategia política que no comparte. Es lo que ha ocurrido con el cuadro de iniciativas que a lo largo de este mes se ha promovido desde EPPK, el colectivo de presos y presas.

**-¿Cómo se encuentran actualmente las relaciones con LAB?**

-La relación entre ELA y LAB no termina de encontrar un espacio en el que la colaboración se consolide. Llevamos un tiempo hablando, tanteando, pero no terminamos de avanzar. Es evidente que nuestro análisis político y el suyo están en este momento muy distantes, y pensamos que no se puede pretender actualmente una unidad de acción en esta materia.

Nosotros pensamos que, a pesar de ello, hay un amplio campo de actuación en lo sindical y en lo social en que podemos, y debemos, coincidir.

Es lo que tenemos que explorar, aunque en este momento parezca que se están imponiendo elementos de competencia y enfrentamiento sobre los de cooperación.

*"Egoera politikoari buruzko hausnarketa ezberdina egiten dugu ELAk eta LABek, baina horrek ez luke dena baldintzatu behar"*

*"Errepresioaren aurkako borrokan gure jarrera argia da, eta jarrera horrekin kontsekuenteak izaten saiatzan gara"*

Jendarte eredua

# JAURLARITZA, UGAZABEI BEGIRA

Mikel Noval, Jendarte Politikarako arduradunak, gogor kritikatu du Eusko Jaurlaritzako lehendakariordeak egoera ekonomikoari buruz egin duen balorazio baikorra. Novalen iritziz, Idoia Zenarruzabeitiak datu orokorrak soilik hartu ditu kontuan, hau da, Barne Produktu Gordinaren hazkundeari dagozkionak, baina ez dio erreparatu nahi izan hazkunde horrek duen banaketari.

Novalek gogorarazi du 13 hazkunde-urte daramagula, eta denbora horretan ekoiztutako aberastasunean soldatapekoei dagokien partehartzea etengabe txikitzen joan dela. "Zenarruzabeitiak ugazaben etekina besterik ez du ikusten eta bost axola zaio langile askoren lan eta bizi-baldintzak jasaten ari diren narriadura". Jarrera honek arbi azaltzen du, Novalen arabera, nori begira gobernatzen duen Eusko Jaurlaritzak eta zeintzuk diren bere lehentasunak.

*El Gobierno Vasco oculta los datos económicos que informan sobre cómo se está distribuyendo la riqueza creada*

Memoria histórica

# 3 DE MARZO, 31 AÑOS DE INJUSTICIA

El próximo sábado se hará un nuevo homenaje a las víctimas del 3 de Marzo en Gasteiz. Ha pasado otro año más sin que se hayan esclarecido las responsabilidades de aquel 3 de marzo de 1976 que dejo en Gasteiz 5 muertos y decenas de heridos por una agresión policial salvaje. El responsable de ELA en Gasteiz, Luis Fernandez, destaca la importancia de seguir recordando a las víctimas. "Hoy en día máximos reponsables de aquella matanza siguen estando impunes y presentes en la vida política, alguno incluso como presidente honorífico de algún partido que se dice democrático. Lejos de resarcir la memoria de las victimas del 3 de marzo y a sus familiares mediante la depuración de responsabilidades, la injusticia en torno a esta fecha se sigue produciendo". Luis Fernandez no olvida el caracter sindical y obrero de las víctimas del 3 de Marzo. "Los derechos laborales y sociales se van reduciendo a la minima expresión. La legislación laboral del estado, creada en la transición, y de aplicación en Euskal Herria, se va deteriorando año tras año, con Reformas Laborales como la del pasado año 2006, que recortan derechos al antojo de una Patronal insaciable que bate record históricos en sus cuentas de resultados.

*Martxoaren 3ko hilketaren arduradunak zigorrik gabe jarraitzen dute egun*



## Xabier Agirretxe considera que Adegi debería aprender de la huelga de hace tres años

# SERÁ UNA DURA NEGOCIACIÓN

**El 22 de febrero ELA, que cuenta con el 53% de representación en el sector, presentó la plataforma reivindicativa para el sector de la construcción de Guipúzcoa. Un sector que hace tres años protagonizó una importante huelga que se prolongó por espacio de 37 días. Un dato que, según de Xabier Agirretxe, responsable de la construcción en Gipuzkoa, la patronal Adegi debería tener en cuenta a la hora de negociar el convenio de este año.**

**-¿Qué conclusiones se pueden sacar de los primeros contactos con la patronal Adegi?**

-Todos los indicios apuntan a que la negociación de este año va a ser muy dura. La patronal quiere recuperar terreno perdido y vamos a tener que trabajar mucho para conseguir nuestros objetivos.

**-¿Cuáles son estas reivindicaciones?**

-En primer lugar, exigimos un incremento salarial del IPC más un 2,5%, además de una reducción de jornada de 13 horas para este año. Otro aspecto importante para nosotros es la regulación de la subrogación para los trabajadores de mantenimiento de carreteras y la limitación la subcontratación en la obra.

La responsabilidad en la subcontratación debe alcanzar a todos los aspectos que tiene regulados la empresa principal y no sólo a los salariales como ocurre ahora en muchos casos.

También hemos incorporado temas sociales importantes, como pueden ser mejoras en licencias, dietas y kilometraje, inclemencias del tiempo, calendario, etc...

**-Hace tres años los trabajadores protagonizaron una larga huelga. ¿Con qué resultados?**

-Fue una huelga liderada por ELA desde el principio. Este hecho ha sido así percibido por los trabajadores de los distintos tajos que han vuelto a dar la confianza a nuestros representantes en las elecciones sindicales. Aunque era una tarea muy difícil hemos logrado subir en representación, pasado del 48 al 53% en el periodo concentrado.

> *"ELAk gehiengo osoa du sektorean, ordezkaritzaren %53a. Horrek langileen babesa ematen digu, eta Adegik hori kontutan izan beharko luke negoziazioetan"*

## Labur Breves

### ● Greba Gipuzkoako paperraren sektorean

Otsailaren 23an eta 24an langileek bat egin zuten Gipuzkoako paperreko sektorean ELA, LAB, UGT eta CCOO sindikatuek deitutako greba egunekin. Grebaren helburua negoziaketa mahaiak bizi duen blokeoa egoera apurtzea da.

Bestalde, Ertzaintzak otsailaren 22an galarazi egin zuen greba batzordeak Papelera de Oria lantegiaren aurrean mobilizazioetara deituz prestatu zuen informazio orrien banaketa. ELAren esanetan onarezina da Ertzaintzak grebalariek duten eskubide baten aurka jotzea.

Hurrengo greba egunak martxoaren 2, 3 eta 4ean izango dira.

### ● Osalan premia a una empresa fraudulenta

ELA denuncia la entrega del Premio en Prevención de Riesgos Laborales de Osalan a una empresa que organizó unas jornadas públicas en las que se daban pautas para evitar conceder bajas, y no ser sancionado así por incumplir las medidas de seguridad necesarias; o no tener la maquinaria en condiciones. Para ELA, la entrega de este galardón a la firma Fuchosa es un fraude y muestra el poco interés del Departamento de Trabajo para acabar con la siniestralidad en el trabajo.

### ● Tubacex-eko eztanda, enpresaren zabarkeriaren ondorio

Lan ikuskaritzak ezagutzera eman duen txosten batek azpimarratzen duenez, abuztuan Amurrioko Tubacex enpresan izan leherketa Tubacexen zabarkeriaren ondorioz izan zen. ELA-Metalak adierazi nahi izan duenez argi gelditu da enpresak ez zituela betetzen gutxieneko segurtasun neurriak.

### ● LHE-aren aldeko kontzentrazioa

ELA, ESK eta STEE-EILAS-eko ordezkariak Nafarroako Parlamentuaren aurrean bildu ziren otsailaren 23an, UPN, CDN eta PSN alderdiek Legegintzako Herri Ekimena atzera bota izana salatzeko. ELAko Nafarroako arduradun Mitxel Lakuntzak kontzentrazioan azpimarratu zuenez "ekimena atzera bota duten alderdiek gizarte sentikortasun eza erakutsi dute, eta LHEa sinatu zuten 8.500 lagunei mespretxua azaldu".





**www.ela-sindikatua.org**



ELA astekaria

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

www.ela-sindikatua.org

Franqueo concertado
nº 08/207